



Arartekoaren 2013ko urriaren 8ko ebazpena. Horren bidez, osasun-laguntza doan jasotzeko eskubidea izan dezaketen pertsonen premiazko osasun-laguntza fakturatzeari buruz abiarazitako espedientea amaitzen da.

Aurrekariak

Egoiliar gisa baimenduta ez dauden atzerritarrei premiazko laguntzak fakturatzeari buruzko zirkunstantziak ezagutzeko asmoz. Jakin genituen datuek kasua apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak 16/2003 Legeko 3.ter artikuluari egoera berezietako (larrialdia eta haurdunaldi, erditze eta erdiondokoako laguntza) osasun-laguntzari buruz emandako testu berriari aurreikusitako kasuen artean kokatzera eraman gintuzten.

Kasu zehatz hori ondoren faktura baliogabetzearekin batera konpondu bazen ere, uste dugu gertatutakoak agerian jartzen duela lege aurreikuspen horren aplikazioak dakarren zailtasuna, administrazio egoera irregularrean dauden pertsona horien haien zirkunstantzien egiaztatzea eskatzen baitaie eta hori ez baita erraza. Horregatik, uste dugu ahalegina egin behar dela laguntza jasotzen duen pertsona egoera horretan (administrazio egoera irregularra eta baliabiderik gabekoa) dagoela egiaztatzea eta laguntza eskatzen duen eta, hori behar duen unean, bere zirkunstantziak egiaztatze moduan ez dagoen pertsonaren interesa bateratzeko.

Gogoetak

Bildutako informazioak aukera eman zigun, laguntzarako eskubidea egiaztatzen duen txartelik egon gabe, aurreikusitako kudeaketa sistemak fakturazio-espedientea automatikoki sortzen duela jakiteko. Horrela, laguntzaren kostua fakturatzeko zailtasunaren izaera egiaztatu ez duten pertsona guztiei, baita 16/2003 Legeko 3.ter artikuluan ezarritako egoera berezietan egoteagatik laguntza horretarako eskubidea izan dezaketenei ere.

Beharrezkoa da kontuan hartzea pertsona horiek beti laguntza berezi horretarako eskubidea eta, beraz, haren kostua ez kobratzeko eskubidea dituztela. Gainera,



Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan laguntzarako eskubidea dutela egiaztatzen duen dokumentua izateko eskubidea izan dezakete.

Oinarri hori aintzat hartuta, Osakidetza jo genuen berriro, gaur egun fakturazioa printzipioz ezinbestekoa bada, fakturak hartzaileei 16/2003 Legeko 3.ter artikuluan adierazitako egoera horretan daudela egiaztatu ahal dutela esan behar diela eta, hala denean, Osakidetzaren barnean laguntzarako eskubidea egiaztatzen duen dokumentua eskuratzeko prozesuaren berri eman behar diela proposatzeko.

Osakidetzako zuzendari ekonomiko-finantzarioak uztailaren 22an Arartekoari emandako erantzunean adierazitakoaren arabera, erakunde horretako Fakturazio Batzordeak informazio hori fakturen atzealdean gehitzeko bidezko kudeaketak abiarazi ditu. Gauzatu zain dagoen arren, aurreikuspen horrek honako ondorio honetara eramán gaitu:

Ondorioa

Iragarritako neurriak hartu ondoren, segurtasun juridiko handiagoa eskainiko diete bi aldeei —Osakidetza eta ukitutako pertsonak—, doako laguntza jasotzeko eskubidea sortzen duten zirkunstantziei buruzko informazioa benetan jaso dutela bermatuko baitute.

